



**ATAUNgo UDALA**

## **LIBURU ELEKTRONIKOEN IRAKURGAILUEN MAILEGUA ESKATZEKO ARAUDIA ETA INPRIMAKIA**

Erabiltzaileak informazio - mahaian eskatuko du zerbitzua. Mailegua egiteko, berriz, liburutegiko agiria ( bazkide txartela ) aurkeztu behar du lehenengo, baita erabilera - baldintzak onartzeko dokumentua bete eta sinatu ere.

### **ERABILERA BALDINTZAK**

- 18 urtetik aurreragoko erabiltzaileek erabili ahal izango dute zerbitzu hau.
- Mailegua berritu ezin diren 21 egunetarako egingo da. Informazio - mahaian itzuli behar da. Erreserbatzerik badago.
- Erabiltzaileak ezin du irakurgailuaren programa - konfigurazioa ukitu edo aldatu.
- Erabiltzailea da gailuaren eta bere osagarri guztien arduraduna maileguan duen bitartean, eta eramandako baldintza berdinetan itzuli behar ditu. Erabiltzaileak irakurgailuaren funtzionamenduan edozein anomalia antzematen badu, berehala adieraziko dio liburutegiari.
- Zigorretarako arrazoiak dira:
  - Aparatua eta bere osagarriak berandu itzultzea. Berandutze - egun bakoitzak egun bat izango du zigor.
  - Irakurgailua edota bere osagarriak ez itzultzea. Erabiltzaileak irakurgailua edota osagarriak berrezarri behar ditu. Galdu edo lapurtu izanez gero, materiala berrezarri behar da.
  - Aparatuaren konfigurazioan aldaketak egitea: mailegu - zerbitzua bi hilabetetan ezin erabiltzea izango du zigor.
  - Erabilera txarraren ondorioz kalteak eragitea: materiala mailegatutako baldintza berdinetan itzuli behar da.

**Liburutegiak beharrezko ikusten dituen ekintzei heltzeko eskubidea hartzen du bere gain araudi hori ez betez gero.**